

GAZTE HIZKERAK – HIZKERA GAZTEAK

Kike Amonarriz

Helbide elektronikoa: kamonarriz@euskalnet.net

0. SARRERA

Udako Euskal Unibertsitateko Soziolinguistika Sailak 2006ko uztailean antolatatu zuen "Erronka berriak euskararen erabileran" ikastaroan eman nuen hitzaldirako prestatutako materiala da artikulu honetan aurkituko duzuna.

Hitzaldi hura prestatzeko materiala, berriz, HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroan eskaintzen dudana "Gazteen euskararen erabilera: hizkuntza kalitatea" gaitik hartu nuen.

Eskerrak eman behar dizkiet HIZNETeko arduradunei material hauek guztiak argitaratzeko eta erabiltzeko emandako erraztasunengatik.

1. GAZTE HIZKERA EDO GAZTE HIZKERAK

"Hizkuntza komunitate bat, funtsean, harreman-sare bat da" (Joan Fuster)

Gazte hizkeraz ari garenean esan beharreko lehen gauza da, ezin daitekeela gazte hizkera bakar bati buruz hitz egin. Gazte hizkeraz baino, gazte hizkerez hitz egin behar dugu.

Gazteen artean sumatu ditugun fenomeno gehienak, lehendik ere helduen artean, alde edo moldez, neurri handiagoan ala txikiagoan, ger-

tatzen ziren. Baina, azken urteotako bilakaera soziolinguistikoak sakoneko eraldaketak eragin ditu haur eta gazteen tipologia soziolinguistikoaren ezau-garrietan; kuantitatiboak ez ezik, baita kualitatiboak ere. Aldaketa horien ondorioz sortu diren hizkera molde berriak, beraz, gazte hizkeratzat hartu-ko ditugu eta, berriak diren neurrian, hizkera gaztetzat ere har ditzakegu.

Gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko adina. Eta tipologia soziolinguistikoak asko ugaltu direnez, gazte hizkerak eta hizkera gazteak ere asko ugaltu dira.

Sortzen ari diren errealitate berrien nondik norakoak aztertze-ko, orain arte egindako lanez gain, azken bi urte hauetan HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroko ikasleek, gai honen inguruan egindako ariketak hartu ditut oinarritzat¹. Ariketa hauetan, Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko desberdinetan, hainbat herri eta eskualdetan eta bitarteko teknologiko desberdinetan bildutako materialak aztertu ditut eta berauetan bildutako ondorioak elkarren artean erkatu, azalduko ditudan emaitzeta-ara iristeko. Lerro hauen bidez, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, bide batez, ikasle hauei.

Aztertutako testu, mezu eta ariketa hauen arabera, honako hauek dira hizkera-moten ugalketa eta aniztasun honetan gehien eragiten duten faktoreak:

- Norberaren euskararen ezagupen maila.
- Familiaren eta ingurunearen euskararen ezagupen maila.
- Ezagutzen den/diren euskara motak: batua, etxeko/herriko euskalkia(k).
- Bizi den ingurunearen errealitate soziolinguistikoa eta linguistikoa.
- Euskalkiaren ezagupen maila.
- Bizilekuan euskarak eta euskalkiak duten bizitasun etnolinguistikoa.
- Harreman sarearen ezaugarri soziolinguistikoak.
- Norberaren eta taldearen identitatea eta ideologia linguistikoak.

Faktore horiek izan dezaketen eraginaz gain, une jakin batean hiztunak hizkera mota bat ala beste aukera dezake aldagai hauen arabera:

- Mintzakideen hizkuntza ezagupena eta tipologia soziolinguistikoa.
- Komunikaziorako erabiltzen den harreman-bidea:
 - Ahozkoa edo idatzizkoa.
 - Aurrez aurrekoa ala bitartekoren baten bidezkoa.
- Harreman-mota:
 - Mintzakide ezaguna edo ezezaguna.
 - Harreman formala edo informala.
- Gai eta euskarri-mota.
 - Gai formala edo informala.
 - Gune formala edo informala.

Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko desberdinetan, hainbat herri eta eskualdetan eta bitarteko teknologiko desberdinetan bildutako materialak aztertu ditut eta berauetan bildutako ondorioak elkarren artean erkatu.

*Internetek,
digitalizazioak eta
telefoniaren garapenak
pertsonek arteko
harremanetan eragin
dituzten aldaketek
ondorio zuzena izan dute
hizkuntzaren
erabilpenean, eta hiztunek
darabiltzaten hizkera-
mota desberdinetan, batez
ere maila idatzian.*

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu joera horiek beste hizkuntzetan ere gertatzen direla, bertako hizkuntzalari eta hezitzaileen artean euskaltzaleengan sortzen dituzten pareko kezkak eraginez:

“Language contact is everywhere: there is no evidence that any languages have developed in total isolation from other languages” (S. Thomason: “Language Contact” 2001)

2. HIZKERA ETA IDAZKERA GAZTEAK

Teknologia berrien eraginez, komunikazio-bide eta harreman-mota berriak sortu dira. Bitarteko eta bide berri horiek aldarazi egin dute, baita erabilitako hizkera-mota ere. Internetek, digitalizazioak eta telefoniarren garapenak pertsonen arteko harremanetan eragin dituzten aldaketek ondorio zuzena izan dute hizkuntzaren erabilpenean, eta hiztunek darabiltzaten hizkera-mota desberdinetan, batez ere maila idatzian.

Esan genezake, hizkera/idazkera berri bat sortu dela teknologia berrien gerizpean, erregistro berri honek, oraindik ere, argot izena merezi ez badu ere. Idazkera berri honen ezaugarriak komunak dira Europako izkina honetako hizkuntza guztietan edo gehienetan, nahiz eta euskararen kasuan, gure egoera soziolinguistikoa dela medio, azpi-fenomeno berezi batzuk ere agertzen diren. Joera orokor horien artean hona nagusienak:

- Joera hau berria da. Euskal Herrian 2.000. urtean hasi zen hedatzen sakelako telefonoen ugalketarekin batera eta 2003/4an sekulako hedadura ezagutu du messengerra dela medio. Une honetan, 14-25 urte bitarteko gazteen artean ohikoak dira harreman bide hauek.
- Kode idatzia ahozko koderak gerturatu da. Ahozko kode informaletik, idatzizko kode formaletik baino gertuago kokatzen diren idatzizko harreman motak dira SMSak, Messengerra, etab. Messengerretik ari garenean “hizketan” ari garela esaten dugu, inori ez litzaioke bururatuko halakori idatzi diot esatea, halakorekin hizketan ari naiz baizik. Idazkera berri honen oinarrian idazkera estandarra egon arren, ahozko hizkeraren ezaugarriak nagusitzen dira, maiz.
- Transgresio nahia nabarmena da. Estandarraren arauak ez dira errespetatzen eta ekonomia eta adierazkortasuna bilatzen dira. Araurik ez dago: ulergarritasuna da arau bakarra.
- Talde-nortasun baten ezaugarri agerikoa da idazkera berri hau. Talde marka indartu egiten da eta “boterearekiko” edo “arauarekiko” bereizgarritasuna eta haustura bilatzen dira. Gertutasuna eta bertokotasuna asko estimatzen dira.
- Adierazkortasuna indartu nahi da: mezu biziagoak, arinagoak, alaiagoak, zuzenagoak lortu nahi dira, estandarrek adierazten duen urruntasuna, zuzentasuna edo seriotasuna gaituz.

3. HIZKERA BERRIAK EUSKARAZ EDO EUSKARAZKO HIZKERA BERRIAK

3.1. Ezaugarri nagusiak

Euskararen kasuan, joera nagusi horiekin batera, fenomeno bereziak ere agertu dira:

- Mezu eta harreman mota horietan euskara batua ez da errespetatzen. Batua ezagutzen dute eta idazkera batutik abiatzen dira askotan, baina, ez da idazkera batu “zuzena” erabiltzen. Salbuespen nagusiak bi dira:
 - Gai serioak ukitzen diren egoerak eta gune edo foroak.
 - Euskararen ezagupen maila mugatua izan eta ingurune erdaldunetan bizi diren gazteak. Hauek, euskara batu estandarrean idazten dute.
- Nahasketa eta kode alternantziak ohikoak dira:
 - Euskara eta gaztelania (Iparraldeko ariketarik ez dugu bildu), edo beste hizkuntzak nahasten dira: normalean, ingelesa, frantsesa edo italiara.
 - Batua eta euskalkia nahasten dira. Eta euskalkirik hitz egiten ez den inguruetan, norberak gertuen sentitzen duen edo gehien ezagutzen duen euskalkiaz baliatzeko joera ari da zabaltzen.
 - Norbere euskalkia eta beste euskalkiak. Joera honen hastapenak sumatu ditugu.
 - Euskara zuzena eta euskara akastuna. Akatsak oso modu naturalean onartzen dira idazkera berri honetan.

3.2. Tipologia nagusiak

Joera nagusi horiekin batera, berriz, batzuetan kontrajarriak izatera iristen diren portaerak topatu ditugu:

- *Erdaraz ari direnak*
Erdara hutsez idazten dutenak, edo euskara, agurtzeko eta hitzen bat edo beste txertatzeko darabiltenak. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasle batzuek adierazi dute oso zaila egin zaiela euskarazko mezuak aurkitzea, beren inguruan denek erdaraz bidaltzen dituztelako. Honako herri hauetakoak ziren zailtasunak izan dituzten ikasleak: Donostia, Bilbo eta Trapagaran.
- *Ingurune erdaldunetan bizi eta –gutxi edo gehiago– euskaraz ari direnak*
Euskalkirik ezagutu ez, ingurune erdaldunetan bizi edo/eta bizitza

Ahozko kode informaletik, idatzizko kode formaletik baino gertuago kokatzen diren idatzizko harreman motak dira SMSak, Messengerra, etab.

Idazkera berri honen oinarrian idazkera estandarra egon arren, ahozko hizkeraren ezaugarriak nagusitzen dira, maiz.

*Talde marka indartu
egiten da eta
"boterearekiko" edo
"arauarekiko"
bereizgarritasuna eta
haustura bilatzen dira.*

erdaraz egin, eta euskaraz idazterakoan batura jotzen dutenak. Horien artean bi multzo nagusi:

- *Batuaz zuzen-zuzen idazten dutenak.*

Sektorerik kontzienteenetan, idazkera hau estandarretik oso geru kokatzen da eta apenas duen erdararen interferentziarik. Horrela idazten duten batzuen esanetan, beste erremediorik ez dutelako idazten dute horrela, gabeziatik, alegia: ez dute euskalkirik menderatzen eta ez dute erdarakaden jokoan erori nahi, nahiz eta beren idazkerari naturaltasun falta izugarria antzematen dioten. Komatxoak erabili ohi dituzte erdarakadak edo erabilera okerrak markatzeko: "mezutegi", "mundu irreal"...

- *Euskañolez idazten dutenak, batua/euskalkiak erdararekin nahastuz.* Batzuetan ez da erraza izaten erabakitzea erdaraz ari diren euskara poxiak tartekatuz edo alderantziz. Kanean euskaraz ari direnean darabilten hizkera bera darabilte esamesetan edo mezuetan. Bizitasuna edo adierazkortasuna behar dutenean, baliabideak falta zaizkie euskaraz eta dakitenetik elikatzen dira, erdaratik, alegia. Ez dira gutxi "Pidgin" moduko hau darabiltenak. Adibidez, Izaro Ugaldek Donostian bildutako mezu hau:

"a:oporretan? ni, con medio trunkazo-gripe, yokese. y de secretaria.
hay que joderse! un estresssss..... baina ondo. a ver noiz azaltzen zean?"

- *Euskalkirik ez eduki arren, batuaz ez idazten ahalegintzen direnak.* Asko dira, gazte hizkeraz komunikatzen ahalegintzen diren gazte euskaldun "hiritarrak", nahiz eta erabat ez asmatu, Isusko Diezek *Matrakan* jasotako adibide honetan argi asko ikusten den bezala:

"Tangea dakon neskato baten bila gonguz. Norbait interesatua badego, idatzi gonguzagela mesedez. URTXI (Bilbaokoa)".

Multzo hauetan, erdaratik euskarara datozenak euskaratik erdarara doazenekin nahasten dira.

• **Euskalkietarako joera dutenak**

Euskalkiaren bizitasun soziolinguistikoaren arabera hiru multzo nagusitan bana genitzake herriak:

- Euskalkia bizirik eta indarrean duten herriak.
- Euskalkiaren kale eta familia-transmisioan eten nabarmena jasan duten herriak.
- Euskalki bizirik ez duten herriak.

Euskalkia bizirik dagoen zonaldeetan (ahaztu gabe, bizitasun horren graduazioan alde handiak egon daitezkeela herri batetik bestera), idazkera berri hau, oinarritzat euskalkia duen ahozko erabileratik elikatzen da, nahiz eta euskara batuaren idaztarau nagusiak mantentzen diren, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hizkera berriaren adierazkortasuna euskalkian oinarritzen dute gehienek.

Bestalde, kaleko hizkera imitatu nahi izaten dutenez, eta normalean, kaleko hizkeran interferentziak eta kode nahasketak ohikoak direnez, beren mezuak interferentziaz beteak eta nahasiak izan ohi dira. Lehen esan bezala, batua eta euskalkiak eta, euskara eta erdara nahasten dira.

Multzo honen barruan bi joera nagusi identifikatu ditugu:

- *Kalean hitz egiten den bezala idazten dutenak.*

Euskalkira jotzen dute, baina interferentzia eta erdarakadak maiz darabiltzate. Egoera zenbat eta informalagoa izan, erdara-
ren presentzia orduan eta handiagoa.

- *Interferentziak ekiditen dituztenak, euskara jatorragoa erabiliz.*
Euskalkia bizirik eta indarrean dagoen herrietan eta hizkuntz kontzientzia garatua dutenetan, esames eta mezuetan ere alde nabari da. Askoz ere euskara jatorragoa darabilte eta askoz ere interferentzia gutxiagorekin. Era honetako kasuak aurkitu ditugu honako herrietan: Mutriku, Goizueta, Busturia, Ondarroa eta Azpeitia. Adibide gisa, hona Eneritz Ruizek *Matrakan* aurkitutako hau:

Hortza zorrozute ta begiye kamustute zazkeaben hoyei: Ronaldinha gurie dek!
Fitxauta zakeau ta klausula millonayue jarrita. Platonikue dek, baño gurie. Ametsetakue, baño gurie. Kostako zatzue hori kentzie!

- Are gehiago, kasu batzuetan, gazte-heldu kontzientziatuenean, sms-ak bidaltzean ahozkoa ere "garbitu" eta zuzendu egiten dute. Ad:

dezidittu> erabaki (Oihana Lujanbiok Goizuetan jasoa).
pagazun >ordaindusun (Kattalin Arizmendiarrietak Ondarroan)

Kontzientzia linguistiko hori nabarmen azaltzen da mezu batzuetan. Irakurri Denis Elortzak *Uztarría.comen* 2006ko ekainaren 15ean aurkitutako mezu hauek:

7. Donostiarra

Ni Donostin bizi naiz, eske azpeitin zeazte un poco paletos, zer nahi duzue ba? Hiri baten bizi zarenean ez duzu holako arazorik. Hemen gainera martxa asko dago, piskat guayago da. Azpeitiko neska batekin ateratzen nintzen baino utzi egin nuen, eske beti nahi zuen ni herri hortara eramatea, que horror!

16. donostiarrai

gu paletuek izengo gaituk baino euskeraz behintzet paletue heuk ematek," ai, da pixkat guayago". hik meezi dituk bizkarrekuek.

Bestalde, Irantzu Jakak Gasteizko senide batzuegan sumatu ahal izan duen bezala, "ingurune erdaldunetan euskalkietara jotzeko grina nabari da, kasu honetan, batera baino gehiagotara":

Euskalkia bizirik dagoen zonaldeetan, idazkera berri hau, oinarritzat euskalkia duen ahozko erabileratik elikatzen da, nahiz eta euskara batuaren idaztarau nagusiak mantentzen diren, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Bestalde, kaleko hizkera imitatu nahi izaten dutenez, eta normalean, kaleko hizkeran interferentziak eta kode nahasketak ohikoak direnez, beren mezuak interferentziaz beteak eta nahasiak izan ohi dira.

Ahalik ta gehien lagntzn saiatuko gea.sos1 tiagenial,osondo zauz umeekin ta ez dt nahi txarto eotea.

• **Batuaz modu adierazkorrean idazten dutenak**

Aitzitik, badira batuaz, guztiz era komunikatibo eta adierazkorrean idazten dutenak.

Aimar, orain ez zaigu ezer falta... Frontisa eta txapa eta txapapea neuk jarriko ditut, pilotak zuk ekarriko dituzu, eta igandetik txapela ere badaukazunez, egin dezagun!!Hernani." (Eneritz Ruizek Matrakan aurkitua).

Batzuen idazkiak irakurrita esan liteke, erdarakadak sartzea ez zaie-la batere axola, baina inondik inora nahi ez dutena batuaz idaztea dela.

Ingurune euskaldunenetan ere (Oiartzun, esate baterako) guraso erdaldunak dituztenek, euskalkia gutxiago menderatzen dutenek eta gazteleraz askotan aritzen direnek, euskalkia erabili arren, interferentzietarako askoz ere joera handiagoa dute. Multzo honek, loku-zioak, esamoldeak eta era guztietako erreferentzia linguistikoak etxean erdaraz jaso ditu modu naturalean eta euskarazkoak berriz, eskolan, ikasketa modu formalaren barruan, eta maiz —beraiek diotenez— EGA prestatu behar zenean.

4. HIZKERA BERRIAREN EZAUGARRIAK

Esamesetako eta txat/messengerreko nazioarteko idazkeraren joera nagusiak aurki daitezke euskarazko harremanetan ere:

- Laburdurak:
 - Hizkiak (batez ere bokalak) soberan: nn ao? Zln zz?
 - Akronimoak: AMZ (=Asko maite zaitut); ZG (= Zer gise?)...
 - H-a askotan desagertzen da: *ire, or do*
 - Zenbakiak silaben ordeztuz: *d2l, 3nn, nr 4na d.*
- Ikonoak: :-{ }
- Indargarriak:
 - Beste hizkuntzetatik hartutako hizkien irakurketa: "W" (wazen), "y" (by)...
 - Onomatopeiak: *jajaja, jurjur, ajaj, zzzzzzz*
 - Letra larriak: *ZEEEE!*
 - Puntuazio markak errepikatuta (harridura, galdera...): *Zer?????*
 - Hizki errepikatuak: *bbaizeaaaaaaaa, aioooooo*
- Hizki larririk eta puntuazio markarik ez.

Akats ortografikoei ez zaie garrantzi handirik ematen. Mezu hauetan (eta ez bakarrik euskararen ezagupen eskasa duten gazteenetan) ohikoak

dira era guztietako akatsak. Ulergarritasuna bermatzen bada, mezua ahalik eta azkarren bidali nahi da. Abiadura komunikatiboa lehenesten da.

Lehen esan bezala, ahozko erabilera islatzen da idatzizko mezuetan. Esamesez edo internetez hitz egiten den bezala idazten da, baina ez dago horretarako araurik.

Laburdurak direla eta, kasu berezia aurkitu dugu ingurune euskaldunenetan idatzitako mezuetan. Herri hauetako euskarazko mezuetan laburdura gutxiago erabiltzen da eta akronimorik ez da erabiltzen: Baztan, Mutriku, Ondarroa eta Oñati (azken honetan joera kontrajarriak topatu ditugu):

- Badirudi, euskara jatorrena darabilten gazteek erdal munduko gazteek baino joera formalistagoa dutela.
- Susmoa dugu euskalkietan laburdurak ohikoagoak direnez, ez dela bestelako laburdura artifizialik erabili nahi, ulergarritasuna bermatze aldera. Gauzak honela, ulergarritasun nahiak formalismora daramatza.

Adinak ere zerikusi zuzena du laburduren erabileran: idazleak zenbat eta gazteagoak izan, mezuak orduan eta ulertezinagoak. Nagusiek errespetu handiagoa diete idaztarauetara, seguruenik, ohitura gutxiago dutelako horrelako erabileretan. Adinean gora egin ahala, mezuetako hizkera formalagoa da, nabarmen.

SMS hizkera, bestalde, beste eratako mezu eta idazkietara ere zabaldu da: messenger, postalak, agendetako oharrak.... Euskarri horietan, ordea, laburdurak, etab. ez dira horren nabarmenak.

5. ERDARA NOIZ ETA ZERTARAKO?

Hasteko, arazo metodologiko bat planteatu behar dut: nola bereiztu maila leguak eta interferentziak hizkera kolokialean? Esate baterako, zer da "pizina" hitza elkarriketa arrunt batean? Ingurune euskaldunenetan "pizina" da erabilera arrunteko hitza, "igerilekua" kanpaitua gerta daitekeelarik. Zonalde erdalduagoetan, berriz, euskaraz egitean "igerilekua" darabilte eta "pizina" hitza erabateko erdarakada iruditzen zaie.

- Erabilera sozialak, hitz eta esamolde batzuk onargarritzat ez ezik, ohikotzat bilakatu ditu.
- Euskarazko adierak maiz ez dira sozialki erabiltzen eta ez dute onarpen sozialik. Nire inguruan, esate baterako, "sakelakoa" k nahikoa lan, "Udaletxea" k bai, "argazkia" k eta "antzerkia" k bai, eta "mikro-uhin" ak, "iratzargailuak" edo "urrutizkinak", berriz, ez.

Orreaga Ibarren Erroibarren gertaturiko hizkuntzen arteko ukipenak aztertzean (*Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gaztelania, euskara, Pirinioetako ibar batean* in Oihenart, Cuadernos de lengua y literatura,

***Aitzitik, badira batuz,
gutziz era komunikatibo
eta adierazkorrean
idazten dutenak.***

Akats ortografikoei ez zaie garrantzi handirik ematen. Ulergarritasuna bermatzen bada, mezua ahalik eta azkarren bidali nahi da. Abiadura komunikatiboa lehenesten da.

2006), esate baterako, honako arrazoi hauek eskaintzen ditu, hiztegian gertaturiko galerak azaltzeko, Weinreich eta Muysken bezalako egileetan oinarrituta (esaldiak guk nabarmendu ditugu):

- “Kultur eraginarengatik
- Anbiguitateak ekiditeko bi hitz antzekoak izatekotan.
- *Hitz afektiboen sinonimoen beharra etengabekoa delako, eta lehenagotiko hitz horiek beren balio adierazkorra galdua zutelako.*
- *Sinonimoen beharra handia delako.*
- *Bereizketa semantiko berriak egiteko beharra dagoelako.*
- *Elebitasun bortitzaren ondorioz, hitz bat ia ohartugabe sar daitekeelako.”*

5.1. Interferentziak erabiltzeko arrazoiak

Jasotako informazioaren arabera, honako hauek dira interferentziak erabiltzea eragiten duten arrazoirik nagusienak:

- Adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistikorik eza. Zerbait adierazi nahi da eta hori euskaraz nola esaten den, esaten zen edo esan daitekeen ez jakitea.
- Euskarara heltzeko bidetzat hartzea. Aurten bertan, Ermuan 13 urte inguruko koadrila bati, beraien artean messengerren nola idazten zuten galdetu, eta gazteek beraiek baikortasun osoz erantzun: “Guk euskañolez!”. Deigarria egin zitzaidan adin horretako gazteek kontzeptua horren barneratuta izatea.
- Besteen hizkerarekin bat egiteko modua. Adibidez, iaz Berastegin emandako hitzaldi batean bertako gazteek aitortu zidatenez, Tolosara joaten direnean, beren hizkera egokitu, okertu eta pobretu egiten dute, kalekumeen talde hizkerara egokitzeke. Fermin Etxegoienek (2004) honela definitzen du egoera:

“(…)euren hizkuntzaren jatorrasunaren biktima bilakatzen dira zenbait euskaldun, eta honek “galga” ere badakarkie, kasu batzuetan, euskal gizarte garaikidean parte hartzerako orduan.”

- Erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea. Gazteen intereseko gaitan (musika, moda, kirola...) erreferentzia gehienak erdaraz daude eta esamolde, terminologia eta lokuzio eguneratuak falta dira euskaraz.
- Lokuzioak eta esaera zaharrak ez dituzte ezagutzen edo ez dituzte ondo interpretatzen. Are gehiago, Miren Munarrizek aipatzen duen bezala, batzuentzat beroien erabilera pedantea da, eta horregatik jotzen dute erdal esamoldeetara.

Antzeko ondorioetara iristen da Hernán Urrutia, EAEko elebitasunaren inguruan argitaratu berri duen lanean (*El bilingüismo en la CAV: aspectos*

lingüísticos y educativos in Oihenart, Cuadernos de lengua y literatura, 2006).

Hau guztia esan eta gero, atera dugun ondorio nagusienetako bat honako hau da: interferentziak ezin direla berez eta besterik gabe modu okerrean baloratu (ikuspegi soziolinguistiko batetik begiratuta, behintzat), batzuetan erdaratik euskararako bidea egiteko makulu ezinbestekoak gertatzen baitira. Euskaraz hitz egin ohi duten gazteen artean aldiz, interferentzien gehiegizko erabilerak beregaintasun falta adierazten du.

5.2. Interferentzien erabilera guneak

Interferentziak nonahi topa badaitezke ere, komunikazio-ekintzen barnean, esparru jakin batzuetan dentsitate handiagoz azaltzen dira. Hauek nabarmenduko ditugu:

- Agurrak:
 - *Kaixo par de cabezones, wapisima, vaya nivel!...*
- Esaldi amaierak:
 - *Muxutxus...*
- Lexikoa:
 - Ahozko erabileran ohikoak direnak: *piszina, frigorifikoa, kanpo-fuola...*
 - Adierazkortasuna indartzeko argota: *putamadrekua, flipantea, txapa, agobiatuta, musike guapue, mobidie...*
 - Euskarara moldatutako hitzak: *mertzi, txao, rayauta...*
 - Ingeles terminologia: *“Early adopters-ak gara” (Sustatun jasoan, shockeatu, we can do it, banoa de shopping...*
 - Hitzak/Esamoldeak hartu edo itzuli: *mugikorra / portablea, ligatu / dragatu, askotan eññ naiz galdera hau (gaztemugi), Julai bat izan (Kaixo)...*
 - Erdarazko maileguak, etab. euskal ortografian eman ohi dituzte sarri.
- Lokailuak: *onbre ba, teniendo en cuenta ke, eske, keba, aunke, aber...*
- Egiturak:
 - Erdal sintaxiaren kalkoak: *si abixatu nizun, tolosa kontra ordizia, q ne aitak br du...*
 - Ergatiboaren erabilera okerra: *si ni ez dut egin...*
 - Aditzen aspektuaren erabilera okerra: *geatze gea?, inbitatze-deu?...*
- Tartekaturiko esaldiak.
 - *Pos na, ya m vuelvo pero spero q ns veams pront. Da gorantxis(no s si s scribe asi)a tos y 1musu pati (Ane Olabarrik jasoan).*

Badirudi, euskara jatorrena darabilten gazteek erdal munduko gazteek baino joera formalistagoa dutela.

Interferentziak ezin direla berez eta besterik gabe modu okerrean baloratu (ikuspegi soziolinguistiko batetik begiratura, behintzat), batzuetan erdaratik euskararako bidea egiteko makulu ezinbestekoak gertatzen baitira. Euskaraz hitz egin ohi duten gazteen artean aldiz, interferentzien gehiegizko erabilerak beregaintasun falta adierazten du.

6. EUSKALKIAK ETA BATUA

Gazte hauek alfabetatuta daude eta, akatsak egin arren, badakite batuaz idazten. Are gehiago, duela gutxi arte, gehienek idazteko izan duten erreferentzia bakarra euskara batua izan da. Baina beraien arteko harreman kolokial eta informaletan ez dute batu-batuaz idazten, nahiz eta batua den gehienetan, oinarri eta abiapuntu.

Batuaz idatzi nahi ez izanaren ondorioz, euskalkietara hurbiltzeko joera antzematen da, nahiz eta euskalkiak ere ez dituzten tradizionalki erabili izan diren modu berebean erabiltzen. Euskalkien erabilera hau dela eta, honako joera hauek agertu zaizkigu:

- Hiri hizkerarik edo argotik ez dugunez, euskalkia da heldulekurik garrantzitsuena gazte hizkera berriak sortze aldera.
- Maiz batuaren eta euskalkiaren tarteko zerbait aukeratzen da, baina ortografia batuaren arauak ez dira erabat hausten ia inoiz. Adibidez Azpeitian:

“etortzeie” > “etortzen die”

- “H”aren erabilera irregularra da. Normalean ez da beti erabiltzen, baina ez da erabat desagertzen.
- Euskalkian ohikoak ez ziren eta batukoak diren hitzak barra-barra erabiltzen dira. Ad: hilabete izenak, irakurri, udaletxe...
- Ingurune erdaldunetan ere (Bilbo, Iruñea...) euskalkietara jotzeko grina nabari da, eta batzuetan batera baino gehiagotara.
- Garbi dago berrikuntza teknologikoei eta komunikatzeko dagoen erraztasunari esker euskalkiak gerturatzen ari direla. Baina, hezkuntza munduan erabat zabalduta dagoen kezkarri nola erantzun? Nola jokatu euskalkiekin?

Pentsa zitekeen bezala, herri batean euskalkia zenbat eta biziago eta indartsuago egon, bere eragina orduan eta nabarmenagoa da gazte hizkeran. Belaunaldien arteko transmisioa kalean eten ez den herrietan, askoz ere indar gehiagorekin eta baliabide gehiagorekin darabilte gazteek herriko hizkera: Urola, Goizueta, Ondarroa... Kaleko eten hori nozitu duten herrietan, aldiz, nabaria da jauzia hizkuntza baliabideetan (lokuzioak, hitanoa...): Tolosan, esate baterako.

Euskalkira jotzearen aldeko arrazoen artean honako hauek nabarmenduko ditugu:

- **Hurbiltasuna:** mintzakideen arteko distantzia komunikatiboa murriztu egiten da; askoz ere komunikazio-maila gertuagoa lortzen da, nahiz eta euskalki desberdinetan aritu. Batuak distantzia komunikatiboa handitu egiten du, gazte askoren ustez.

- **Kolokialtasuna:** kalekoago bihurtzen du komunikazioa eta ez horren akademiko edo formal.
- **Benetakotasuna:** zu kalean zaren bezala agertzen zara, batuaren “makilajetik” pasa gabe.
- **Intimitatea:** gai pertsonal eta intimoiei heltzeko aukera gehiago eskaintzen du:
 - Messengerrren, maiz, aurrez aurre aipatzen ez diren gaiak ukitzen dira berdinen taldeetan; intimitate maila handiagoa da eta euskalkiak horretarako egokiagoak dira.
 - Gai serioak, berriz, batuaz jorratzen dira, gaiarekiko distantzia markatuz.
- **Jatortasuna:** euskalkia jatorriarekin, leku batekin eta erreferentzia batzuekin lotzen da. Lurraldearen eta jatorri geografikoaren marka eskaintzen du. Bertoko hizkerak prestigiatu egin dira nortasun ikur gisa (herrikoitasuna eta jatortasuna). Ezizenak (tokikoak eta pertsonenak...) ere erabiltzen dira batzuetan herri-nortasuna sakontzeko. Hala gertatzen da Mutrikun, Abel Irizarrek aipatzen duenez.

Horiek denak esan eta gero, nolana ere, azken bolada honetan sumatutako arrisku batzuk ere aipatuko ditut:

- Txokokeriaren arriskua:
 - Gehiegizko bereizgarriak erabiltzea (Koldo Zuazok maiz aipatu du arrisku hau bere lanetan).
 - Isolamendu linguistikoa bultzatzea.
 - Adibide gisa honako hauek aipatuko ditut: zertarako erabili hilabete izenak euskalkian, Euskal Herri osora zabalduriko mezuetan?, Zergatik “Euskera” Batzordea erabili agiri ofiziale-tan?, Zertarako desitxuratu herri izen ofizialak festetako karteletan?...
- Jatorrismoaren edo folklorekeriaren arriskua:
 - Erabilera esparruak eta egokierak ez bereiztu eta beti erregistro bera erabiltzea.
 - Erabilera formaletan, erregistro informalak erabiltzea.

Gazte hizkerek euskalkietatik jaso dituzten ekarpen nagusi eta erabilerajoa orokorren artean, honako hauek aipa daitezke hurbilpen gisa:

- Tokian tokiko lexikoa:
 - Jatorra: *zoze, olango lakatzagaz...*
 - Maileguak: *kampofuola, periodikua...*
- Esamoldeak, lokuzioak:
 - *Lanbasa atrapa, arra jotzen, erruberan ein...*
- Aditzak:

Pentsa zitekeen bezala, herri batean euskalkia zenbat eta biziago eta indartsuago egon, bere eragina orduan eta nabarmenagoa da gazte hizkeran.

Oso hastapenetan dagoen fenomenoa bada ere, gero eta nabarmenagoa da, norbere herrikoak ez diren beste euskalkien presentzia, erabilera eta nahasketa. Fenomeno hau, gure ikuspegitik, areagotzen joango da.

- Euskalkian erabiltzen diren bezala.
- Euskalkietako aditzak moldatuta: *txosnetan ibilli gintzezan*.
- Aditz nagusia eta laguntzailea hitz bakarrean:
 - *Gudot, naizu?, explikaukoizuttt...*
- Bustidura:
 - *Gaixki, eukittia, zeaittik, pillua, barrixe, ittko, politx...*
 - Idazkera ere moldatu dute batzuetan: Oiartzunen batzuk "tt" idatzi beharrean "T".
- Kontsonanteen erorketa:
 - *Geatu, euki...*
 - *Atu>au: kantau, bukau*
- Bokalen alternantzia: hamen, barri...
- Fonetismo bokalikoak:
 - I+a > *ixa, iya, ie: herrixa, iritzie, mendiya...*
 - Ian>in: *errin...*
 - Ua > ue: *moduen...*
 - E+a > ia: *bestia, gizartian, idaztiagatik...*
 - O+a>ue, ua: *soluziñue, gogua, mutikua...*
 - O>u: *jun, nun...*
 - A>ea/ie: *programea, programie....*
- Laburragoak diren beste euskalkietako formak:
 - Ondarroa inguruko aditz laguntzaileak: na, ga..
 - Goierriarren partizipioko —au amaierak: geau, abisau..
 - Ondarroa aldeko hitz bukaerak: baji hartut

Euskalkia ere ez dute modu "puruan" erabiltzen, transmisiotik jaso dutena eta kalean erabiltzen dena, batuaren interferentziekin nahastuta baizik. Aditzetan eta deklinabidean, bestalde, ohikoa da gazteen artean, ez batukoak ez euskalkikoak ez diren taula "egokitu eta kontsentsuatuak" erabiltzea. Ad: Ondarroa:

- Amendik – emendik
- Gatxuzen – zaxkitzn
- Naibo zu – naiba zu
- Bestiai – bestiei

Oso hastapenetan dagoen fenomenoa bada ere, gero eta nabarmenagoa da, norbere herrikoak ez diren beste euskalkien presentzia, erabilera eta nahasketa. Fenomeno hau, gure ikuspegitik, areagotzen joango da honako arrazoi hauengatik:

- **Hedabideen eragina:** gero eta gehiago entzuten ditugu beste euskalkiak eta hizkerak.
- Gazteen **mugikortasun gero eta handiagoa:** aisia, jaialdiak...

- **Ikasketa unibertsitarioak**
- **Teknologia berriek** komunikaziorako eskaintzen duten aukera: Internet, foroak, messenger, blogak...
- **Musika:** musika taldeen letretan gero eta ohikoagoa da norbere euskalkira edo orokorrean euskalkietara jotzeko ohitura.

Guzti honen laburpen gisa, Elias Zumaldek egindako bereizketa terminologiko interesgarria aurkeztuko dut: Oñatiera vs. Oñatikoa.

- Oñatiera: Oñatiko jatorrizko euskalkia.
- Oñatikoa: gaur egun Oñatiko haur eta gazteek darabilten euskara.

7. GAIK, ESPARRUAK ETA FOROAK

Gaiak, gunek eta erabiltzen den harreman-bideak guztiz baldintzatzen dute erabiltzen den idazkera:

- Egoera formalak eta informalak bereizten dira batetik:
 - Formalak: azterketak, literatur lehiaketak...
 - Informalak: messenger, agendako oharrak...
- Interneten gunearen ezaugarriak mugatuko du askotan erabiliko den idazkera: zer web, foro edo blog mota den, halako hizkera-mota:
 - “Berria”ko eztabaidetan baturako joera nabaria da.
 - Herri-aldizkarietako foroetan aniztasun handiagoa ikusten da, euskalkietarako joera askoz indartsuagoa izan arren; batzuetan ia erabatekoa (Uztarria).
 - Gasteizko egoera soziolinguistikoak eta webaren izaera ofizialak, erabilitako euskara motaz gain, euskararen beraren erabile-ra baldintzatzen dute “gauekoak” foroan.
- Eztabaidagaiak asko mugatzen du idazkera, lehen esan bezala:
 - Gai serioei buruzko web edo foroetan batuaz idazten da nagusiki: gaztesarea, hainbat blog politiko...
 - Gaia harremanak, sexua, festa edo musika baldin bada, gazte hizkera askoz ere indartsuago ageriko zaigu: Gaztea...
 - Bada gaien arabera idazkera mota bat edo beste gailentzen den gunerik: Sustatu...
 - Anonimotasunak idazkera informalera bultzatzen du.

Aztertu ditugun gunek gehienak hegoaldekoak dira eta nabarmena da Iparraldeko gazteek ez dutela berauetan parte hartzen. Ongi aztertu beharko litzateke zergatia eta oztopo hau gainditzeko moduak diseinatu. Arrazoi-tako batzuk honako hauek izan daitezke: gaztelaniaren presentzia gehiegizkoa, ulermen arazoak, erreferentzia arrotzak...

Aztertu ditugun gunek gehienak hegoaldekoak dira eta nabarmena da Iparraldeko gazteek ez dutela berauetan parte hartzen. Ongi aztertu beharko litzateke zergatia eta oztopo hau gainditzeko moduak diseinatu.

Aztertu ditugun mezu eta testuen argitan, garbi dago gazte euskaldunen artean ez dagoela gazte hizkera bakar bat, hizkera gazte ugari baizik.

8. EUSKARAZKO ARGOTAREN SORRERANTZ?

Aztertu ditugun mezu eta testuetan hizkuntza sorkuntza oso eskasa da. Gazte hizkerari legezkiokkeen ekarpen lexikalak edo esamoldeak gutxi dira. Aurkitu ditugun artean honako hauek nabarmenduko genituzke:

- “Zeba?” “Zergatik?” en edo “-lako” atzizkiaren ordez galdera-erantzunetan.
- Hitanoaren erabilera desegokia (neskei ere toka); edo erabilera transgresorea?
 - Hitanoa, nolana ere, oso gutxi erabili ohi da, eta erabiltzen denean, maiz, hitanoa eta zutanoa nahastuta edo nahikoa modu desegokian.
- Forma berriak:
 - “Jota” Oñatin (=oso): jota jodiuta ñauan, jota pozik...
 - “Kriston” Gipuzkoan (=oso): kriston ona...
 - “Zerki?” Baztanen = zer gisa?
 - “Jebixe” Bizkaian (=laostia, itzela)
 - “Txistua jo” Lea-Artibain (=alkoholemia) eta “lanbasa atrapa” (=mozkortu)
- Tokian tokiko berben eta lokuzio tradizionalen erabilera:
 - Etxe unifamiliarrez josi (Uztarria)
 - Kaka zaharra, Kakazten (Orokorrak)
 - Aaaarrrraaaa jotzen, mekaben txotx, kaxkurrio (Zarautz)
 - Susterbako, lotsaripeztekozu, olango lakatzagaz (Arratia)
- Hedabideetatik hartuak:
 - Zapatuen egongo gatxink (Galdakaon)

9. ONDORIOAK

AZTERTU DITUGUN MEZU ETA TESTUEN ARGITAN, GARBI DAGO GAZTE EUSKALDUNEN ARTEAN EZ DAGOELA GAZTE HIZKERA BAKAR BAT, HIZKERA GAZTE UGARI BAIZIK.

Hizkera berri horien moldaketan, faktore ugari eragiten du; batzuk, mendebaldeko kultura osatzen duten hizkuntza komunitate gehientsuenetan, alde edo moldez, ageri diren fenomenoak dira (digitalizazioaren eta teknologia berrien zabalkundeak eragindakoak, batez ere); baina beste batzuk gure hizkuntza komunitateak bizi duen egoera soziolinguistiko minorizatuaren ondorioz sortutakoak dira. Horietako batzuk belaunaldi guztietan suma daitezke, nahiz eta azken hamarkadetan hizkuntzaren normalizazio prozesuak izan duen aurrerapenaren eraginez, haur eta gazteen artean nabarmenagoak izan. Eta badira, azken urteotako bilakaeraren ondorioz, gazteen artean antzeman daitezkeen fenomeno berriak.

Izan ere, gazte hizkerari dagokionez, badago euskara estandarretik urrundu den oinarritzko fenomenologia bat, egoera soziolinguistiko desberdinen arabera, molde desberdinak sorrarazi dituen.

Honek guztiak oso errealitate anitza sortu du, aurrera begira, multzo soziolinguistiko desberdinei egokitutako estrategiak planteatzea eskatzen duena; helburua beti ere, haur eta gazteen mintzatzeko gaitasuna eta hizkuntza adierazkortasuna indartzea izanik.■

BIBLIOGRAFIA

- AMONARRIZ, K.(2002): Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran. Ikastolen Elkartea: IX: Jardunaldi Pedagogikoak, 417-45 orriak.
- AMONARRIZ, K (2003): Hizkuntza kalitatea, burujabetza linguistikoa da. Bat, 49. 157-163.
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1073656018
- ASKOREN ARTEAN (2005). *Gazte hizkera*. Urtxintxa Eskola. Donostia.
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1134860990
- CRYSTAL, D. (2007). *Hizkuntzaren iraultza*. Erein. Donostia.
- ETXEGOIEN, FERMIN (2004). *Neurona eta zeurona*. Pamiela. Iruñea.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004): *Euskararen kalitatea*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/euskararen_kalitatea_eu.pdf
- HERNANDEZ, J.M. (2005): *Jolasgaraia*. *Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiako Euskal Koadernoak 16. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- IBARRA, O. (2006). *Hiru hizkuntzaren arteko ukipena*. Frantsesa, gaztelania, euskara, Pirinotako ibar batean in Oihenart, Cuadernos de lengua y literatura, 179-193 orriak. Eusko Ikaskuntza. Donostia
- THOMASON, S. (2001): *Language Contact*. Edinburg University Press.
- URRUTIA, H. (2006). *El bilingüismo en la CAV (Comunidad Autónoma Vasca): aspectos lingüísticos y educativos in Oihenart, Cuadernos de lengua y literatura, 481-520 orriak*. Eusko Ikaskuntza. Donostia
- ZALBIDE, M. (2002): *Ahuldutako hizkuntza indarbertzea: teoriak zer dio?.* Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- ZUAZO, K. (2000): *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. Irun.
- ZUAZO, K. (2003): *Euskalkiak*. Herriaren lekukoak. Elkarlanean. Donostia.

Gazte hizkerari dagokionez, badago euskara estandarretik urrundu den oinarritzko fenomenologia bat, egoera soziolinguistiko desberdinen arabera, molde desberdinak sorrarazi dituen.

OHARRA

1. Honako ikasle hauen ariketak erabili ditut artikulu hau idazterakoan: Alex Aisa, Nerea Alaba, Iduurre Alonso, Eider Alustiza, Eñaut Apaolaza, Kattalin Arizmendiarieta, Iñigo Arteatz, Xabier Bengoetxea, Isusko Diez, Haizea Elizondo, Denis Elortza, Arantza Epelde, Amets Etxabe, Ainitze Etxaniz, Garikoitz Etxeberria, Gorane Fernandez, Nagore Ferreira, Eñaut Frantsesena, Imanol Haro, Maite Inda, Abel Irizar, Sonia Isasi, Irantzu Jaka, Almudena Landera, Janire Lopez, Natalia Lopez, Oihana Lujanbio, Roberto Manjon, Gurutze Maritorea, Jose Inazio Mosteiro, Arantza Munarriz, Miren Munarriz, Lohitzune Nuin, Ane Olabarri, Josu Osa, Eneritz Ruiz, Olatz Sanchez, Maider Sukuntza, Izaro Ugalde, Elena Urzelai, Teresa Zarraga eta Elias Zumalde.